



ERRENTERIA, LANGILE BEZAIN EUSKALDUN

MIKEL UGALDE

Badira herrien historian garrantzi haundiko momentuak, badira herriaren historia loturik uzten duten korapiloak, badira gure kondairan une garrantzak. Besteak beste, Euskal Herriaren hego aldean hemeretzigarren mendean zehar ematen den al-daketak erabat zintzilikaturik uzten du gure egungo historia. Gaurregun esku artean dugun zenbait arazo industria martxan jarriz geroztik sortua da eta gaurdaino konponketarik ezagutu ez duena.

Errenteriako euskaldunok langile bezain euskaldun nahi dugu gure herria, eta euskaldun bere osotasunean, herriaren nor izateari dagokionez. Euskararen etorkizuna, eta euskaldunon etorkizuna beraz.

GIZARTE HAUTSIA

Industriaren iraultzarekin batera sortzen den gizarte berria era desberdinean erditua izan da. Ingalaterran berezko zioari jarraituz eman zen bezala, Frantzian berebiziko iraultza sortarazi zuen. Espainia estaduan erdizka baino ez zen pauso hau eman, eta hego Euskal Herrian larriminez sortutako gizarte hautsia dela esan genezake.

Karlistaden gerratea jasan eta gero, XIX mendearen bigarren erdialdean ematen den aldakuntza garrantza da Sabino Arana bezelako abertzalearentzat, lehengo aberri garbiari eutsi nahi dion batentzat. Sabinok abenda nahastuzeko arriskurik

ikusten du, euskara eta erlijioa galduz doazela antz ematen. Gizarte berriaren eragileei, Bizkaiko oligarkiari batipat, bost axola zaio euskal gizartea. Zenbat eta esku lan merkeagoa, be-
raientzat hobe.

Industriakuntzak, bere buruaren jabe ez den herri batetan ematen delarik, herri hori erabateko murrizketan jarriko du.

Eta gure gizaldi honen haseran gizarte hautsia ikusten dugu Euskal Herria. Kanpotarren eta bertakoen arteko zatiketa, lehengo gizartea eta jaio berria den gizarte moldea gogoan daukatenean arteko etena. Sinestunak eta sinesgabeak, euskaldunak eta erdaldunak. Sabinoren eta Unamunoren lanak irakurtzea aski dukezu garai hartako egoeraren garrantzaz jabetzeko.

Garai hartan gertatuaren ondorioak jasan behar izan ditugu, ondorengoek guk eginaen ondoriak jasan beharko dituzten bezalaxe.

Euskal gizarteak oraindik hautsirik dirau, eta, dirudienez, oraindik luzarorako etena dukegu esku artean.

ERRETERIA INDUSTRIATUA

Xenpelarrek Fabrika Haundian lan egiten zueneko industria girotik gaurko egunera bada alderik. Xenpelar bezalako bertolaririk ez bait dezake gaurko gizarte honek sortarazi.

Erreteriak azken mende erdi honetan izugarritzko hazkuntza ezagutu du. Herri industriatua izanik, luzaroan halako proportzioz eman zen gure herriaren hazkuntza. Jendetza aldetik ez zen hainbestearinoko kolperik izan, eta garai hartan Erreterira inguratzen ziren etorkinak bertakoekin ezkondu eta erabat bertako egiten ziren.

Gerra ostean, autarkia egoeratik industriaren desarrolloa eman zenean, Erreterian itxuragabe egiten dira etxeak. Alabarga, Galtzaraborda, Iztieta, Gabierrota, Beraun, Kaputxino, Olibet, Markola... Horko jendetzaren emana. Egunez egunero, handik eta hemendik, kanpoko etorkinak zetozen Erreteriarako inguruan lan egin asmotan. Erreterian bertan ez bait da etxegintzaren hainbateko industriagintzarik eman, alderantziz baizik.

Mugimendu guzti hau zenbaiten interes politiko eta ekonomikoaren onerako eman dela garbi dago.

Erreteria hautsirik geratu zen, bere nortasuna kolokan, erdal gizarte giroa nagusituz joan zitzaigularik.

Halaz ere, azken urteotan gertatua ikusi eta gero, ez dezakegu Erreterian bi gizarte mueta daudenik esan.

ERRETERIA EUSKALDUNA NAHI

Bada Erreterian euskararen alde lanik asko egin duen talderik. Denbora asko da ikastola sortu zela, gaueskola bera ere ez da gaur gaurkoa. Zenbait ohitura eta usariori ere tinko eutsi zaio. Erreteriak bere nortasunari eutsi diola esan dezakegu.

Halaz ere badugu kezkarik. Ikastola hazi egin da, ikastolak ugaltu egin dira, baina ez da aski. Erdal eskoletan ere euskara irakasteari ekin zaio, baina ez da aski. Euskal kulturaren aldeko ekintzak ugaltu egin dira, herriko jaiak halako euskal kutsuari eusten diote, baina ez da aski. Herri aginte mailan elebitasunez jokatzeko ardua eta joera erakutsi da, baina ez da aski. Iragarriki eta karteletan euskara gehiago ikusten da, baina ez da aski. Guzti hori bada zerbait, eta ez gutxi, baina ez da aski.

Garai batetan Bizkaian industriakuntza eman zen bezala, industriakuntzaren ondoren jaiotako gizartea, bere buruaren jabe izan ez zen, eta gaur ere ez den, gizartearen antzekoa da gure herrikoa ere. Geure buruaren jabe ez garen bitartean ez dugu euskararen arazoa konponduko. Baina euskararen arazoi erantzuten ez zaion bitartean ez gara geure buruaren jabe izango.

Eta guzti hau ez lehengo gizarte zaharrari begira, egungoa osatu eta berri bat bersortu asmoz jokatzu baizik. Izan ere euskararena ez bait da azaleko, aldiko, gaindi daitekeen arazoa. Ezta gutxiagorik ere.

Euskararekin loturik, euskaltasunean sustraiturik euskal izaerari dagokion eran eta neurrian erantzun gabe bizi direnen abertzaletasunean ez dut sinesten. Euskararekin bat eginik bizi diren erakundeen abertzaletasunean ez dut sinesten.

Etorkinen eta bertakoen arteko integrazioa ematen ari da. Pauso handia beraz. Etorkizuna itxaropenez ikus daiteke, baina bidearen haseran baino ez gaudela konturatzen eta ohartzuten garen neurrian.